

Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Baikorrak gara

Ni neu nahiko baikorra naiz, berez. Ustez ezker abertzalekoak diren zerrendak enegarren aldiz debekatu dira, hauteskundeak antidemokratiko bihurtuz, ez dakit zenbat eskubide hautsiz. Ez da ezer gertatzen. Ez omen dugu biktimismoan erori behar. Euskal alderdiren batek protesta xume bat egin eta kito. Imazen eta Urkulluren Madrilgo adiskide gaiztoek bere hauteskunde kuttunak nola desdemokratizatu egin dituzten ikusita, nik, neure zindotasunean, ez dut ulertzen, ordea, zergatik Lehendakariak, hauteskundeetara deitu zigun bezala, ez ote digun desdeitu.

Europatik etorri behar izan zaizkie Euskal Gobernuak Osakidetza eta Ertzaintzarena, esate baterako, bereziki larria dela salatzeraz, euskarari dagokionez. Ez dutela euskararen legea bera ere betetzen esan diete. Harrigarria, non eta Ertzaintzan legea bete ez. Hamai-ka ikusteko jaio gara, bai! Baztarrak ez du jantzirik urratu. Ez da jendarean agertu euskaldungoari barkamena eskatzen. Ez du, ezta ere, agindu berehala jarriko direla bitartekoak afera soluzionatzeko. Lasai dago, poltrona salbu du-eta. Ez omen dugu biktimismoan erori behar.

Bilbon euskararen eta kulturaren oasia den Kafe Antzokia itxi dute hilabetez, beraren iraupena kolokan



IÑIGO AZKONA

jarritz. Segurtasuna erabili dute aitzaki. Agerian gelditu da, berriz, benetako arrazoia oso bestelakoa izan dela. Euskara bost Azkunari; euskal kultura bost Azkunari; kultura bera bost Azkunari. Azkunari arduraz zaion bakarra boterea da. Kafe Antzokia herri mugimendutik jaioa da, kooperatiba moduko autogestio ereduarekin. Ezin dute kontrolatu, beraz, suntsitu behar. Ez omen dugu, baina, biktimismoan erori behar.

Milioiak gastatzeko prest dago, Azkunaren lagun mina den Bilbao jauna, Urdaibain Guggenheim berria eraikitzeko. Urdaibain inor gutxi dauka interesik atzerritarren menpeko kultura elitista horren luzakinean, baina, bitartean, BBKri geratzen zaizkion lan sozial bakanetakoa desagertzeko zorian dago, umeen atsekaberako.

Egunero eremu guztietan ikusten dugu nola euskara era paisajistikoa erabiltzen duten, erabiltzen baldin badute ere. Pittin bat sakonduz gero, berehala jausten gara espejismotik. Ia ezina da esparru publikoan ere gestioak euskaraz egitea. Webgune ziztrin batetik nabigatuz gero, oso litekeena da halako batean, besterik gabe, euskarazkoan egonik esteka bat sakatu eta erdarazkora pasatzea.

Horrela jarrai genezake *ad infinitum*. Baina, lasai. Ez dugu-eta biktimismoan erori behar. Baikorrak gara! ■

◀

Imazen eta Urkulluren Madrilgo
adiskide gaiztoek bere hauteskunde
kuttunak nola desdemokratizatu egin
dituzten ikusita, ez dut ulertzen,
zergatik Lehendakariak,
hauteskundeetara deitu zigun bezala,
ez ote digun desdeitu

▶

TXANDAN

Joxerra Garzia

Marx



Aurrena Marx aipatu, eta gero, berehala, aipatuaren izena Groutxo dela zehaztea: horra hor posmodernoen ateraldirik ohikoetako bat, hasieran akaso bere grazia puntua izan zezakeena. Bestea, Karl, apenas aipatzen duen inork, modaz pasa-pasa eginda omen baitago. Izan ere, burutik behar du batek kapitalismoak bere burua irentsiko duela iragartzeko, beste Marxek, Karlek, egin zuten bezala; gainera, Marxen ideietatik sortu zen komunismo sobietarra.

Gauzak horrela, beldur naiz Euskal Herriaren zati bakar bateko hiritar bakar batzuentzat bakarrik antolatuta

diren hauteskunde hauetan ez dugula Marxen bizirik inon ikusiko. Bibote pintatua bai, hori sarri agertuko da, nahiz hautagai batzuei Groutxorena baino Harporen antz handiagoa hartzen diedan, hitz egiterakoan erakusten duten doitzeko eta zehazteko gaitasun harrigarriarengatik.

Postontzitik jasotzen ditudan panfletoetan suntsitzen ari dena konpontzeko kontuak datoz, inork ez du aipatzen suntsitzen ari denari suntsitzen laguntzeko planik. Ikusiak ikusita, neuk ere, Groutxok bezala, ez dut izan nahi lau urtez behin ni bezalako jendea onartzen duen ezein klubeko partaide. ■